OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALERRIAN MINTZALAGUN PROGRAMA KOORDINATZEKO ETA DINAMIZATZEKO ZERBITZUEN KONTRATUA

PROZEDURA IREKIA ERRAZTUA

-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA –

ESPEDIENTE KODEA:	2026KO170003

KARATULA

1.- KONTRATUAREN XEDEA:
Mintzalagun programa koordinatzeko eta dinamizatzeko zerbitzuak ematea, Baldintza Teknikoen Agirian jasotzen diren zehaztasunekin.

CPV kodea:
80500000-9 Heziketa zerbitzuak

2.- ESLEIPEN PROZEDURA:
Irekia erraztua. Lizitazio elektronikoa.

3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:
Ohiko izapidetza.

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:

4.1. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa honakoa da:

Urteko 12.000,00 eurokoa (BEZik gabe), gehi % 21eko BEZari dagozkion 2.520,00 euro, guztira urteko 14.520,00 eurokoa (BEZa barne).

Hasierako iraupena bi urtekoa denez, honako hauek dira bi urteri dagozkien datuak: 24.000,00 euroko aurrekontua (BEZik gabe), gehi BEZari dagokion % 21 (5.040,00 euro), 29.040,00 euro (BEZa barne).

SPKLren 100.2 artikuluan xedatutakoa jarraiki, lizitaziorako oinarrizko urteko aurrekontuaren banakapena honako hau da:

Giza baliabideak	*9.396,00 €*
Gastu finkoak	*1.044,00 €*
Kostu zuzenak	**10.440,00 €**
Zeharkako kostuak (% 7)	840,00 €
Etekin industriala (% 6)	720,00 €

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

GUZTIZKO KOSTUA	**12.000,00 €**
BEZa (% 21)	2.520,00 €
GUZTIZKO KOSTUA	**14.520,00 €**

4.2. Kontratuaren balio zenbatetsia:

48.000 eurokoa (BEZik gabe), honako kopuru hauetan banatua:

- Kontratuaren hasierako iraupena (bi urte): 24.000 euro (BEZik gabe)
- Kontratuaren luzapenak (urtebeteko bi): 24.000 euro (BEZik gabe)
- Kontratuaren aldaketak: ez dira aurreikusten

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA:
Bi urtekoa izango da kontratua sinatzen denetik, eta urtebeteko bi luzapen aurreikusten dira.

6.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA:
Ez da eskatzen.

7.- BEHIN BETIKO BERMEA:
Esleipen prezioaren % 5eko baliokidea, BEZik gabe .

8.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:
15 egun natural, kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus) iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

9.- ESPEDIENTEA IKUSGAI JARTZEA:
Oiartzungo Udaleko Kontratazio Profilean www.oiartzun.eus en.

10.- ALDAERAK:
Ez dira onartzen.

11.- KAUDIMENA:

11.1. Ekonomia- eta finantza-kaudimena bitarteko hauetakoren bat erabilita egiaztatu beharko da:

Kontratatu nahi den eremuan, **urteko negozio bolumenak**, azken hiru urteetan bolumen handieneko urteari dagokionak, gutxienez 25.000 eurokoa izan beharko du.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez -onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak- egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

11.2. Kaudimen tekniko edo profesionala bitarteko hau erabilita egiaztatu beharko da:

Azkeneko hiru urteetan kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda aurkeztu beharko da, adieraziz zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, hauetan zehaztuz, erakunde publiko edo pribatuarentzako.

Hori egiaztatzeko organo eskudunak egin edo ontzat emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez; bere kasuan, ziurtagiri hauek zuzenean kontratazio organoari igorriko dizkio eskumena duen agintaritzak.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa 8.400 eurokoa izatea kontratuaren xede diren zerbitzuaren izaera bereko edo antzekoetan.

Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irizpidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Zerrendan adierazitako zerbitzuen artean hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan denetan egindako egikaritza egokiaren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari igorri ahal izango dizkio zerbitzuak kontratatu dituen erakundeak.

11.3. Kaudimen gehigarria: kontratuari atxikitu beharreko giza baliabideak.

Kontratistak kontratuaren xedea betetzeko beharrezko giza baliabide guztiak jarri beharko ditu, gutxienez zerbitzura honako giza baliabideak atxikituko dituela ziurtatuta, Baldintza Teknikoen Agiriaren 5. klausularekin bat etorriz, giza baliabide horiek honako hizkuntza gaitasuna izan beharko dute:

- Euskararen Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila.

Kontratistak bermatuko du, sor daitezkeen ordezkapenetan ere, langile berriek titularraren baldintzak beteko dituztela. Hasierako pertsonalean edozein aldaketa egiteko, Udalak oniritzia eman behar du.

Kontratuaren baldintza hau funtsezko betebeharra da eta, beraz, ez betetzeak zigorrak ezartzea ekar dezake edo kontratua amaitzea eragin dezake, SPKLren 211. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

12.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

1. IRIZPIDE AUTOMATIKOAK…….....…75 PUNTU

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

A) Proposamen ekonomikoa (30 puntu)

Egindako eskaintza ekonomikoa baloratuko da. Preziorik baxuena eskaintzen duenari 30 puntu emango zaizkio, eta ezarritako prezioa berdintzen duenari 0 puntu. Gainerako eskaintzak honako formularen arabera baloratuko dira:

$$\text{Puntuaketa} = \frac{Pb}{Po} \times 30$$

Po= Balioesteko eskaintza ekonomikoa
Pb= Eskaintzarik baxuena

Hasiera batean, neurriz kanpoko edo anormaltzat hartuko dira urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluaren arabera halakotzat hartu beharrekoak.

B) Genero ikuspegia txertatzeko neurriak (5 puntu)

B.1.- Kontratua exekutatuko duen pertsonak edo taldeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan prestakuntza espezializatua izatea baloratuko da gehienez ere 3 punturekin, modu honetan:

- 20 ordu baino gutxiagoko ikastaroak izatea: puntu 1
- 20 eta 50 ordu arteko ikastaroak: 2 puntu
- 50 ordu baino gehiagoko ikastaroak: 3 puntu

B.2.- Exekuzio-taldean emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izatea ere baloratuko da, 2 puntu jasoko ditu exekuzio-taldean emakumeen gutxieneko % 50eko ordezkaritza bermatzen duen lizitatzaileari eta 0 puntu hori bermatzen ez duenari.

C) Hizkuntza kalitateko ziurtagiriak (10 puntu)

Bikain ziurtagiria, Bai Euskarari ziurtagiria edo baliokidea izatea baloratuko da gehienez ere 10 punturekin, modu honetara:

- Ziurtagiririk ez izatea: 0 puntu
- Behe mailako ziurtagiri bakoitzeko: puntu 1
- Erdi mailako ziurtagiri bakoitzeko: 2 puntu
- Goi mailako ziurtagiri bakoitzeko: 5 puntu

D) Ekintza osagarrien kopurua (10 puntu)

Baldintza teknikoen agiriko 3. klausulan, egin beharreko lanei dagokionean, aipatzen den

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

eskaintza osagarrien gutxieneko kopurua (3 ekintza osagarri) hobetzea baloratuko da, modu honetan:

- Ikasturtean 3 ekintza osagarri: 0 puntu
- Ikasturtean 4-5 ekintza osagarri: 4 puntu
- Ikasturtean 6-9 ekintza osagarri: 8 puntu
- Ikasturtean 10 ekintza osagarri edo gehiago: 10 puntu

E) Giza taldea (20 punturaino)

E.1. Giza baliabideak (5 puntu)
Egitasmoa aurrera eramango duen proiektu arduradunaz gain, bere lanak hobeki gauzatzeko lantalde osagarria izatea baloratuko da: administrazioa, logistika, harremanak, komunikazioa… Puntu bat emango da kontratura atxikitutako kide osagarri bakoitzeko.

Lantalde osagarria aurkezten den kasuan, proposatutako giza baliabideak eta bitartekoak zehaztu beharko dira, programa koordinatu eta dinamizatuko duen lantaldearen organigrama eta lantaldeko kideen esperientzia era horretako programetan, baita duten euskara maila ere.

E.2. Prestakuntza (5 puntu)
Helduen Euskalduntze Alfabetatzean aritzeko Glotodidaktika ikastaroa izatea baloratuko da, 5 puntu emango zaizkio kontratura atxikitutako giza taldeko norbaitek ikastaroa badu eta 0 puntu inork ez badu.

E.3. Lan eskarmentua (10 puntu)
Proiektuaren jarraipenaz arduratuko den adskribatutako langilearen eskarmentua antzeko jardueretan. Eskarmentua langile bati bakarrik baloratuko zaio, ondorengo irizpideen arabera:

- Esperientzia eskolaz kanpoko helduen mintzapraktika eta erabilera egitasmoetan. Esperientzia hau honela puntuatuko da: azken 3 ikasturteetan (2023/2024-2025/2026)
  Lan egindako 100 orduko multzo bakoitzeko puntu 1……..……. 5 punturaino.
- Esperientzia helduen euskalduntze eta alfabetatze egitasmoetan. Esperientzia hau honela puntuatuko da: azken 3 ikasturteetan (2023/2024-2025/2026)
  Lan egindako 100 orduko multzo bakoitzeko puntu 1.....3 punturaino.
- Esperientzia euskalgintzan eta euskararen sustapenean: Eskolaz kanpoko euskararen sustapen egitasmo orokorretan Esperientzia hau honela puntuatuko da: azken 3 ikasturteetan (2023/2024-2025/2026)
  Lan egindako 20 orduko multzo bakoitzeko puntu 1 ..... 2 punturaino.

Azaldutako esperientzia ezberdinak baloratuak izan daitezen, ezinbestekoa izango da bakoitzari buruzko egiaztagiri zehatzak aurkeztea. Hartzailea sektore publikoko erakundea baldin bada, egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira; hartzailea pribatua baldin bada, hartzaileak berak emandako ziurtagiri

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

baten bidez.

2. BALIO JUDIZIO BIDEZKO IRIZPIDEAK……...…....…25 PUNTU
Proiektu proposamena (25 puntu)

Proiektuaren errealismoa baloratuko da, eman beharreko zerbitzuari dagokionez eta bere egokitasuna. Proiektua definituko da egin beharreko zereginen arabera eta eskaintzan konprometitutako giza baliabideekin era koherentean:

1. Programaren oinarri metodologikoak……..gehienez 6 puntu
2. Programa gizarteratzeko komunikazio plana eta kronograma……gehienez 4 puntu
3. Giza baliabideen eta bitartekoen antolaketaren proposamena……gehienez 4 puntu
4. Ekitaldiak eta jarduera osagarrien proposamena……gehienez 4 puntu
5. Izen-ematea eta talde antolaketa bideratzeko proposamena……gehienez 2 puntu
6. Taldeen eta programaren jarraipena egiteko modua eta maiztasuna……gehienez 3 puntu
7. Proiektuan genero-ikuspegia txertatzeko neurri operatiboak……..gehienez 2 puntu

Memoria teknikoak gehienez ere 20 orrialde izango ditu, aurkibidea eta eranskinak barne, DIN A4 formatuan. Erabiliko den iturria Arial motakoa izango da, 11 tamainakoa. Ezarritako gehieneko luzera gainditzen duten proposamenak ez dira prozeduratik kanpo geldituko. Kasu horretan edukia baloratuko da, gehienez ere onartzen den orri kopururaino.

Balio judizio bidez baloratzeko irizpideen balorazioan gutxienez 13 puntu lortzea beharrezkoa izango da lizitazioan jarraitzeko.

13.- EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK:

- Bete beharreko gutxieneko lan baldintzak.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagozkion baldintzak.
- Bete beharreko gutxieneko hizkuntza irizpideak.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.- Agiri honetan oinarritzen den kontratuaren xedea karatularen 1. atalean zehaztutakoa da, Baldintza Teknikoen Agirian, baldintza agiri honetan eta kontratuaren esleipenduna gertatzen den eskaintzan zehaztutako baldintzetan, zeinak kontratuzko izaera izango duten.

2.- Kontratu honen xedeak lote bakarra osatzen du.

3.- Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera, karatularen 1. atalean zehaztutakoa da.

4.- Ez da eskaintza alternatiboen proposamenik onartuko.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA GAUZATZEKO EPEA

1.- Kontratuaren iraupena karatularen 5. atalean zehaztutakoa da.

2.- Luzapenak kontratazio organoak erabakiko ditu eta kontratistak nahitaez bete beharko ditu, beti ere kontratuaren iraupen epea bukatu baino bi hilabete lehenagotik adierazten badira. Nolanahi ere, luzapenak berariaz ebatzi behar dira.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA BALIO ZENBATETSIA

1.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia karatularen 4. atalean zehaztutakoak dira.

2.- Lizitatzaileek ezarritako kopurua hobetu ahal izango dute, kopuru horretatik beherako eskaintzak eginez, eta bestelako kopuru zehatz eta finko bat proposatuz.

3.- Enpresa interesdunek egiten dituzten proposamenetan sartuko dira, ondorio guztietarako, kontrataren prezioak ez ezik, baita kontratua gauzatzearen ondorioz sortutako gastuak eta kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, finantzaketa aurreikusia dago, aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura, espedientean zehaztu den partidan.

5. ORDAINTZEKO MODUA

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

1.- Kontratuaren prezioaren ordainketa benetan emandako zerbitzuei edo egindako lanei dagokien hileroko ordainketa bidez egingo da, enpresa kontratistak dagokion faktura aurkeztu ondoren, zeina udal teknikari arduradunak gainbegiratuko eta egiaztatuko duen eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko duen. Halaber, fakturak indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak beteta eduki beharko ditu.

Faktura onartu eta gero, SPKLren 198. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da.

2.- Abenduaren 27ko 25/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, faktura elektronikoa ematera derrigortuta dauden entitateek fakturak formatu elektronikoan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez bidali beharko dituzte, helbide honetara: https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, Oiartzungo Udala atxikitua baitago, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200631
2. Organo Kudeatzailea: L01200631
3. Unitate Izapidetzailea: L01200631

6. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honen xede den prestazioaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez da prezioaren berrikuspenik egingo.

7. BERMEAK

a) Behin-behineko bermea: ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

b) Behin betiko bermea: kontratu honen lizitazioan proposamenik onena aurkezten duen eskaintzaileak, hartuko dituen konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du, esleipenaren zenbatekoaren % 5eko baliokidea, BEZik gabe.

Berme hori jartzeko epea 7 egun baliodunekoa izango da, agiri honetako 14.2 klausulan aipatzen den errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko modua, berriz, SPKLren 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoak erabili daitezke.

Berme epea amaitzen denean, kontratistari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori SPKLren 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. ESLEIPEN PROZEDURA

1.- Kontratu honen esleipena prozedura ireki erraztuaren bidez egingo da, SPKLren 159. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta ohiko izapidetzea jarraituz.

2.- Kontratuaren esleipena egiterakoan, karatularen 12. atalean zehaztutako irizpideak hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

3.- Esleipenduna suertatzen den lizitatzaileak egindako eskaintza, bere osotasunean, kontratuaren edukira sartuko da, eta agiri honekiko hobekuntza suposatzen duen guztia, nahitaez bete beharrekoa izango da.

9. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA

Lizitazio honen iragarkia Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus), Euskadiko Kontratazio Plataforman dagoena.

10. LIZITATZAILE-ERREGISTRO OFIZIALA

1.- SPKLren 159.4.a) artikuluaren arabera, prozedura ireki erraztu bidezko lizitazioetara aurkezten diren **lizitatzaile guztiek** Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena eman beharko dute, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denerako, betiere konkurrentzia mugatzen ez baldin bada. Ondorio horietarako, onargarritzat hartuko da, halaber, lizitatzailearen proposamena, dagokion erregistroan izena emateko eskaera eta horretarako behar den dokumentazioa aurkeztu dituela frogatzen duena, baldin eta eskaera eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa bada. Inguruabar hori frogatzeko, kasuan kasuko erregistroak emandako eskaera hartu izanaren agiria eta aginduzko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez izanaren ardurapeko adierazpena aurkeztuko dira.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena ematen duten lizitatzaileek ez dute aurkeztu beharko, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ez badago, kontratatzeko baldintzak (nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, profesional edo enpresa gisa duten gaikuntza, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala, eta sailkapena) betetzen dituztela egiaztatzeko frogagiririk, ezta erregistroan jasota utzi beharreko kontratatzeko debekuren baten pean ez daudela egiaztatzeko frogagiririk ere.

2.- SPKLren 139.1. artikuluaren arabera, proposamenak aurkezteak berekin dakar Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko, Euskal Autonomia

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetako datuak kontsultatzeko baimena ematea kontratazio mahaiari eta organoari.

11. KONTRATATZEKO GAITASUNA

1.- Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridiko guztiek, baldin eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen badituzte eta SPKLren 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuen kasuren baten barnean ez badaude .

Pertsona fisiko edo juridikoek bere kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, arestian aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkie.

2.- Enpresariek, halaber, kontratu hau burutzeko kasuan kasu eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

3.- Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

4.- Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Gainera, proposamen bat bakarka aurkeztu duen lizitatzaileak ezingo du beste batzuekin aldi baterako elkartuta proposamenik aurkeztu edo aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan azaldu. Lizitatzaileren batek baldintza hauek betetzen ez baditu, ez dira onartuko hark sinatutako proposamen guztiak.

5.- Proposamena aurkeztearekin lizitatzaileak bete-betean eta oso-osorik onartzen ditu baldintza agiri honetako eta gainontzeko kontratu-dokumentuetako klausula guztiak, salbuespenik gabe, eta erantzukizunez aitortzen du zuzenak direla aurkeztu dituen datu guztiak eta betetzen dituela zerbitzua kontratatzeko ezarrita dauden betekizun guzti-guztiak.

6.- KAUDIMENA:

Lizitatzaileek karatularen 11. atalean zehazten diren kaudimen ekonomikoko eta finantzarioko eta teknikoko edo profesionaleko baldintzak bete beharko dituzte.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

Udalak ofizioz egingo ditu, beti ere ahal den neurrian, aipatu baldintzak egiaztatzeko jarduketak, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzailearekiko. Bestela, beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatuko dio, baldintza agiri honen 14.2 klausulan ezartzen den unean eta moduan.

Horrez gain, enpresak nahitaez kontratuari atxikitu beharko dizkio karatularen 11.3 atalean zehaztutako gutxieneko giza baliabideak, bertan zehaztutako baldintzak bete beharko dituztenak. Helburu horrekin, lizitatzaileek zerbitzua emateko kontratura atxikiko dituzten giza baliabideen konpromisoa hartu beharko dute, agiri honen **II. eranskinean** jasotako ereduari jarraiki, eta SPKLren 140. artikuluan aurreikusten den adierazpenarekin batera aurkeztuko dute.

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak alderdi horiek egiaztatuko ditu, baldintza agiri honen 14.2 klausulan xedatutakoarekin bat.

12. ESKAINTZAK AURKEZTEA

1.- Kontratazio honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa, Oiartzungo Udalean (Done Eztebe Plaza 1) aztertu ahal izango da, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baliodunetan, kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte. Orobat, agirietara eta gainerako dokumentu osagarrietara jo daiteke profilaren bidez, www.oiartzun.eus helbidean.

Epea: lizitatzaileek beraien eskaintzak lizitazio iragarkia **kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus) argitaratu eta hurrengo egunetik** kontatzen hasita **HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO epean aurkeztu beharko dituzte.**

2.- Proposamenak www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira.

3.- Dokumentazioa nahiz jakinarazpenak eta komunikazioak bidaltzeko, jarraitu egin beharko zaio baldintza agiri honetako **IV. eranskinean** jasotakoari.

4.- Dokumentuak/edukiak izendatzeko unean kontuan hartuko dira hurrengo klausulan adierazitako argibideak, bertan adierazten baita artxibo elektroniko bakarrean jaso beharreko dokumentu-edukia.

5.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira. Horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.

12. BIS. PROPOSAMENEN EDUKIA

1.- Proposamenak jarraian adierazten diren "**A" eta "B" artxibo elektronikoetan** aurkeztuko dituzte lizitatzaileek edo lizitatzaileen ordezkari diharduten pertsonek.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

2.- Artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, artxiboaren edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua).

3.- **"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOAK "ARDURAPEKO ADIERAZPENA ETA BALIO JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEN BIDEZ BALORATZEKO DOKUMENTAZIOA**" titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Ardurapeko adierazpena**, baldintza agiri honen **I. eranskineko** ereduaren arabera.

  ** Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak bere ardurapeko adierazpena aurkeztuko du, baldintza agiri honen I. Eranskineko eredua jarraituz.*

  Aurreko paragrafoak aipagai duen adierazpen horren edo horien osagarri gisa, parte hartu behar duten enpresariek aldi baterako enpresa elkartea SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoaren arabera eta kontratua suntsitu arteko gutxieneko iraupenaz osatzeko konpromisoa aurkeztuko da.

  Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta inguruabarrak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.

  *** Atzerriko enpresek, SPKLren 67. eta 68. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna.*

  Ardurapeko adierazpenaz gainera, atzerriko enpresek, kontratua Espainian gauzatu behar bada, zuzenean edo zeharka, kontratutik etor litezkeen gorabehera guztietarako edozein eratako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren pean geratzen direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diote, hala behar badu, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

  Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, ardurapeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Lizitatzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko, baina ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

- **Kontratuari atxikitu beharreko giza baliabideen konpromisoa**, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

- **Memoria teknikoa**, karatularen 12.2 atalean zehaztutako alderdiak jasoko dituena, Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoarekin bat etorriz.

  Memoria teknikoa biltzen duen artxiboak gehienez ere 20 orrialde izango ditu, aurkibidea eta eranskinak barne, DIN A4 formatuan.

4.- "**B" ARTXIBO ELEKTRONIKOAK "IRIZPIDE AUTOMATIKOEN BIDEZ BALORATZEKO DOKUMENTAZIOA**" titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- **Eskaintza ekonomikoa,** baldintza agiri honen **III. eranskinean** jasotako ereduaren arabera, behar bezala beteta.

  ** Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen esanetan, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.*

  *** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamena ekonomikorik, edo eskaintza kontuan hartzeko kontratazio-mahaiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duen omisiorik, akatsik edo ezabaketarik daukanik.*

  **** Prezioen eskaintzaren banakatzean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, oinarrizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat eta ofizioz egingo dira guztizko prezioa lortzeko dagozkion kalkuluak.*

13. KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENEN IREKIERA

1.- Kontratazio organoak Oiartzungo Udalaren kontratazio mahai iraunkorraren laguntza izango du. Halaber, mahaiak hala eskatuz gero, Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egiteko.

2.- Proposamenak dakartzaten artxibo elektronikoak SPKLren 145. artikuluaren arabera dagokion ordenean irekiko ditu kontratazio mahaiak, baldintza agiri honetan ezarritako esleipen irizpideak baloratzeko aplikagarria den metodoaren arabera.

3.- Horrela, bada, kontratazio mahaiak Oiartzungo Udaleko bulegoetan (Done Eztebe plaza 1) irekiko ditu "A" artxibo elektronikoak, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan.

Bai hasierako deialdi hori bai gerta litezkeen aldaketak kontratugilearen profilean argitaratuko dira (www.oiartzun.eus). Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

liteke egokitzat.

Egintza horretan, kontratazio mahaiak kalifikatu egingo ditu aldez aurretiko baldintzak bete izana egiaztatzen duen dokumentazioa eta lizitatzaileen ardurapeko adierazpenak, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarrita dauden baldintzak betetzen dituzten adieraziz.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak hala eskatuta, lizitatzaileek ardurapeko adierazpena zuzendu beharko dute, baldin eta ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena ez badago behar bezala beteta. Halako kasuetan, eragindako lizitatzaileari edo lizitatzaileei 3 egun balioduneko epea emango zaie, zuzentzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio organo edo mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

Halaber, balio judizioen araberako irizpideen bidez baloratzeko dokumentazioa dagokion zerbitzu teknikoari helaraziko zaio, balorazio txostena egin dezan.

4.- Kontratazio Organoak garaiz argitaratuko du kontratatzailearen profilean, www.oiartzun.eus helbidean, noiz izango den “B” artxibo elektronikoak irekitzeko egintza.

Egintza horretan adieraziko du kontratazio mahaiak zein proposamen onartu diren, zein baztertu diren eta zergatik. Era berean, jakinaraziko du nola baloratu balio judizioen araberako irizpideen bidez baloratzeko dokumentazioa; eta, azkenik, irizpide automatikoen bidez baloratzekoa den dokumentazioa ireki eta irakurriko du.

Jarraian, baldintza agirietan ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, gainerako eskaintzak ebaluatu eta sailkatuko ditu.

Ustez nabarmenki baxuegia den eskaintzarik identifikatzen bada, SPKLren 149. artikuluak arautzen duen prozedurari jarraituko dio mahaiak, baina lizitatzaileek dagokion komunikazioa bidali eta 5 egun balioduneko epea izango dute, gehienez ere, beren eskaintzak justifikatzeko.

5.- Bukatzeko, kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio mahaiak kontratazio organoari, puntuaziorik onena lortzen duen lizitatzailearen alde; eta Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, zera egiaztatuko du esleipendun izateko proposatzen duen lizitatzaileari dagokionez: enpresa behar bezala eratu izana; proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko ahalorde askietsia izatea; kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa izatea edo, bestela, dagokion sailkapena izatea; eta kontratatzeko inongo debekuren pean ez egotea.

Lizitatzaileak erregistroan inskribatzeko eskabidea aurkeztu izana egiaztatzeko ahalmena erabili baldin badu, mahaiak lizitatzaileari eskatuko dio aipatutako kontratatzeko gaitasunari buruzko alderdi guztiak agiri bidez justifikatzeko, baita erregistroan jasota ez

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

dauden alderdiak egiaztatzeko ere.

14. KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

1.- **Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena.**

Eskaintzak baloratutakoan, kontratazio mahaiak kontratazio organoari bidaliko dio, aktarekin batera, dagokion esleipen proposamena. Hartan beheranzko hurrenkeran antolatuak agertuko dira eskaintzak, esleipen irizpideak aplikatuta haietako bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza bereizita.

2.- **Eskaintzarik hoberena aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko baldintzak betetzen dituela arrazoitzen duen dokumentazioaren aurkezpena.**

Esleipen proposamena erabaki ondoren, errekerimendua egingo zaio SPKLren 159.4 artikuluan ezarritakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari, zeina lehena izango den sailkapen hurrenkeran, 7 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

a) Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:

- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna, osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero. Pertsona juridikoak bakarrik izan daitezke esleipendun beren estatutuen edo sortze arauen arabera dagozkien helburuen eta jarduera esparruaren barneko prestazioak jasotzen dituzten kontratuak direnean, eta kontu horrek egiaztatuta egon behar du aurkeztutako dokumentazioan.
- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.

b) Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).

c) Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak.

d) Ekonomia jardueren gaineko zerga: Ekitaldi honi dagokion alta, edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpenarekin batera eta, hala badagokio, salbuetsita izanaren gaineko ardurapeko adierazpena.

e) Eskaintzak aurkezteko fasean egindako adierazpenaren arabera, kontratatzeko daukan

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

enpresa sailkapena, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko dokumentazioa.

f) Lizitatzaileak ardurapeko adierazpenean kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatuko duela adierazi duen kasuan, SPKLren 75.2 artikuluan jasotzen den konpromisoa.

g) Kontratua betetzeko bitartekoak (giza baliabideak) atxikitzeko hartu duen konpromisoaren baitan (SPKLren 76.2 artikuluaren arabera), horiek badituela eta eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentuak. Dena den, euskararen gaitasuna agiri bidez egiaztatu ezean, dagokion froga egingo du Udaleko Hizkuntz Normalizaziorako Sailak.

h) Behin betiko bermea eratu denaren egiaztagiria.

Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkeztetik enpresa lizitatzailea salbuetsita gelditukо da.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.

Udalak ofizioz egingo ditu, beti ere ahal den neurrian, atal horietan eskatzen diren alderdi guztiak egiaztatzeko dagozkion jarduketak. Bestela, aipatutako dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3ari dagokion zenbatekoa (BEZik gabe) eskatuko zaio zehapen modura, eta dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren araberako hurrengo lizitatzaileari.

** Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.*

Halaber, kontratua enpresarien aldi baterako elkarte bati esleituko balitzaio, elkarteak eskritura publikoan egiaztatu beharko du eraketa, eta elkarte horri emandako IFZ ere egiaztatu beharko du, kontratua bere alde esleituz gero. Nolanahi ere, elkarteak kontratua iraungo arte iraun beharko du.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

3.- **Esleipena**

Behin betiko bermea eratu eta aipatutako dokumentazioa aurkeztuta, kontratazio organoak dokumentazioa jaso ondorengo 5 egun baliodunetan esleituko du kontratua.

Esleipenak arrazoitua izan behar du, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus).

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, SPKLren 153.3. artikuluaren arabera, zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.

Kontratua aldi baterako enpresen elkarte bati esleitzen baldin bazaio, ABEE horrek bere eraketa egiaztatu beharko du, eskritura publikoan eta elkarte horri emandako IFZ-rekin, kontratua formalizatzeko emandako epean.

15. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

1.- Kontratuak formalizazioaren bitartez indar juridikoa hartuko du.

2.- Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidali eta 15 egun balioduneko epean. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.

3.- Kontratua formalizatu ondoren, Oiartzungo Udaleko kontratatzailearen profilean (www.oiartzun.eus) argitaratuko da.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

III. KONTRATUA GAUZATZEA

16. KONTRATUA GAUZATZEA

1.- Kontratazio organoak, SPKLren 62. artikuluak xedatutakoaren arabera, kontratuaren arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua betetzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearren.

Kontratuaren arduraduna izango da enpresa kontratistaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

2.- Kontratista behartuta dago kontratua betetzera finkatuta dagoen epe barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren zatikako epeetan ere.

Kontratista berandutzeak ez du Administrazioaren aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko. Kontratista, berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu egin bada, Administrazioak kontratua suntsitzeko edo SPKLren 193. artikuluan aurreikusitako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.

3.- Kontratistak kontratua bere "arrisku eta kontura" onartzen duela ulertuko da, SPKLren 197. artikuluaren arabera.

4.- Kontratua gauzatzerakoan, kontratuan ezarritako klausulak eta baldintza agirietan dauden baldintzak eta xehetasun teknikoak bete beharko dira, baita kontratazio organoak kontratistari haiek interpretatzeko ematen dizkion jarraibideak ere. Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

5.- Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea, baita kontratua gauzatzean egindako omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Administrazioari edo hirugarrenei dakarzkien ondorioen erantzulea ere.

17. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202. artikuluaren arabera, kontratua gauzatzeko baldintza berezi bezala ezartzen dira honakoak, kontratistari naiz azpikontratista guztiei eskatuko zaizkienak:

Klausula honetan jasotzen diren baldintzak kontraturako funtsezko betebeharrak dira, eta beraz SPKLren 202.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza horiek ez betetzeak zigorrak ezartzea ekar dezake edo kontratua amaitzea eragin dezake, 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

17.1 BETE BEHARREKO GUTXIENEKO LAN BALDINTZAK

1.- Kontratista behartua dago betetzera lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak, Gizarte Segurantzakoak, Hitzarmen Kolektiboenak eta laneko segurtasun, osasun eta higienekoak, baita lan arriskuen prebentzioari dagozkionak ere, kontratu honetako zerbitzuan erabiltzen dituen langileei dagokienez, eta Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango horiek betetzen ez baditu.

2.- Enpresa esleipendunak, kontratua sinatu baino lehen, adierazi beharko du zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei. Horrez gain, kontratua esleitu ondoren, langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz ahalik eta informazio gehien aurkeztu beharko du.

3.- Enpresa kontratatuak, kontratuaren exekuzio aldi osoan, ordaindu beharko du hitzarmen kolektibo horretan jasotako lansaria, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta inola ere ez da izango hor agertzen dena baino txikiagoa.

Kontratuaren egikaritzeak irauten duen bitartean, enpresa kontratistak kontratura atxikitako langileen lan-baldintzak mantendu beharko ditu derrigorrez aplikagarri den hitzarmen kolektiboaren arabera, horiek okertu gabe; eta hori, hitzarmen kolektiboei indarraldia amaitzeari buruz aurreikuspen legezko edo konbentzionalak aplikatzearen ondorioz aipatu hitzarmenak ondoren indarraldia galtzeko aukeraren kalterik gabe. Betebehar hori bete dela ulertuko da hitzarmenak indarra galdu aurreko –halakorik gertatuz gero– berehalako unean hitzartuta zeuden lan-baldintzak mantentzen badira. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inola ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan.

4.- Enpresa kontratatua behartuta egongo da informazioa ematera, baldin eta eskatzen badiote informazioa emateko kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei benetan zer lan baldintzak aplikatzen zaizkien.

5.- Kontratura atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa, esleipenaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoak ez direnak, aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratazio organoari.

6.- Klausula honetan jasotako betebeharrak betetzeak sortutako gastuak enpresa kontratistaren konturakoak izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskainitako prezioan sartuta egongo dira.

7.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Enpresa kontratistak egiaztatu beharko du enpresa horiek ere lan eta Gizarte Segurantza arloan indarrean diren xedapenak aplikatzen eta betetzen dituztela, eta

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

horren berri eman beharko dio kontratazio organoari.

8.- Baldin eta, enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

17.2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI DAGOZKION BALDINTZAK

1**.-** Enpresa kontratistak, kontratua egikaritzean, ezarri beharko ditu emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzen duten neurriak, enplegurako sarbideari, sailkapen pertsonalari, sustapenari, iraunkortasunari, prestakuntzari, ordainsariei, kalitateari, lan egonkortasunari eta lanaldiaren iraupenari eta antolakuntzari dagozkienak, baita bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateratzen laguntzen dietenak ere kontratua egikaritzera atxikitako langileei, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak eta emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatutakoari jarraiki.

2.- Enpresa kontratistak sexuaren arabera bereizitako informazioa sortu eta erabili beharko du erregistro, inskripzio, datu-base eta zerbitzua ematean sortutako memoria guztietan, eta sexuaren arabera bereizitako datu guztiak bildu eta genero-adierazleak erabili beharko ditu dagozkion txosten eta memoriatan.

3.- Era berean, enpresa kontratistak genero ikuspegia aintzat hartuko du kontratua egikaritzean eta hizkera ez sexista eta inklusiboa erabili beharko du dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterkeria iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero rol eta identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

4.- Enpresa kontratistak bermatuko du sexu jazarpena edo sexu arrazoiengatiko jazarpena ekiditeko neurriak hartzen direla.

5.- Horrez gain, enpresa esleipendunak, 50 langile edo gehiago baldin baditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana eduki beharko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluarekin bat, eta plan horrek dagokion lan erregistroan inskribatuta egon beharko du. Gainera, behin kontratua egikaritzen hasita, enpresak planaren aplikazioa egiaztatu beharko du.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

6.- Gainera, enpresa kontratistak begirunez parte hartuko duela bermatu beharko du prozesuko jarduera guztietan, jatorri aniztasuna, aniztasun funtzionala eta aniztasun sexuala kontuan hartuta. Beraz, jarduerak eta hizkuntza modu integratzailean egokitu beharko dira, aukera berdintasuna eta baldintza berberak lortzeko. Ez dira erabiliko ez hizkuntza ez irudi estereotipatuak, arrazistak, xenofoboak eta diskriminatzaileak, ez prozesuan, ez materialetan eta gainerako euskarrietan.

17.3 BETE BEHARREKO GUTXIENEKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarria eta, besteak beste, Udalaren barne erabilera planean erregulatua.

2.- Enpresa kontratistak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan, bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koaren, III. kapituluan zehaztutako aukerari jarraiki. Oiartzungo Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan.

3.- Horrela, bada, zerbitzuaren hizkuntza nagusia euskara izango da, eta kontratatuko enpresaren betebeharra izango da hori bermatzeko beharrezko neurriak hartzea, Oiartzungo Udalaren Hizkuntz Normalizaziorako Sailaren lankidetzaz eta aholkularitzaz baliatu ahal izango duelarik.

Beraz, kontratu hau gauzatzean herritarrekin euskarazko harremanak ziurtatuko dira, Udaleko planean herritarrekiko harremanetarako finkatutako irizpideen arabera, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz; lehen hitza euskaraz egingo zaie, eta hortik aurrera beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean hitz egingo zaie. Halaber, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira, eta herritarrak eskatzen duenean edo behar-beharrezkoa denean euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Horretarako, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Hizkuntz Normalizaziorako Sailera eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

4.- Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, zerbitzua gauzatuko duten giza baliabideek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez. Kasu honetan, kontratuak

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

herritarrekin eta administrazioarekin ahozko zein idatzizko harremana izatea eskatzen duenez, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila eskatuko da, karatularen 11.3 atalean zehaztutakoari jarraiki.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten giza baliabideek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

5.- Errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta hizkuntza paisaia orokorreko gainerako elementuak eta komunikazioak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak baldin badira. Salbuespen gisa, aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanaz, beti ere aldez aurretik Udalarekin adostuta.

6.- Kontratuaren arduradunak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Udaleko Hizkuntz Normalizaziorako Sailari. Ondoren, Hizkuntz Normalizaziorako Sailak bere balorazioa egingo du, oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

18. DATUEN BABESA

1.- Enpresa kontratistak hauetan xedatutakoa bete beharko du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

2.- Baldin eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak, kontratua dela eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, SPKLren 25. xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko du, bai eta honako arau hauek ere:

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.

2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak kontratuaren helburua betetzeko bakar bakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, adierazitako xederako ez beste baterako erabili.

3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.

4. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete delako edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebehar horrek iraun egingo du.

5. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko indarreko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, kontratuaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:
   a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa kontratistak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa kontratistak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.
   b) Kontratistak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.
   c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, kontratistak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa kontratistaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.

3.- Ezingo dira WhatsApp edo antzekoak erabili lan tresna gisa, zerbitzua jasotzen duten herritarrei jakinarazpenak egiteko edo informazioa zabaltzeko eta partekatzeko.

4.- Enpresa kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, Administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

19. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

Indarrean dagoen legeriak informazio publikoa eskatzeari buruz esaten duena errespetatuz eta SPKLk esleipenaren publizitateari buruz eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz xedatzen duena kaltetu gabe, Oiartzungo Udalak ezin izango ditu beren eskaintza aurkezteko unean, sekretu tekniko edo komertzialak direla arrazoituz, enpresariek konfidentzialtzat ematen dituzten informazioak zabaldu, ezta eskaintzen alderdi konfidentzialak edo eta lehiaketa prozedura honetan edo beste batzuetan konpetentzia faltsutzeko erabil daitekeen ezein informazio ere.

Oiartzungo Udalaren konfidentzialtasun betebeharra berriz, ezin izango da esleipendunaren eskaintzaren eduki osora zabaldu, ez eta lizitazio prozesuan zehar zuzenean edo zeharka sortzen den txosten nahiz dokumentazio osora zabaldu ere. Zabalkunde mugatua duten dokumentuei bakarrik eragingo die, eta inolaz ere ez publikoki eskuragarriak diren dokumentuei.

Konfidentzialtasun betebeharrak ez dio konfidentzialak ez diren burututako kontratuen zatien zabaltzeari eragingo, besteak beste, likidazioa edo kontratatu diren enpresak eta azpikontratatutakoak, bere kasuan, eta kasu guztietan eskaintzaren alderdi esentzialak eta ondoren egiten diren kontratuaren aldaketak, beti ere Datu Pertsonalen Babesari buruzko legeria errespetatuz, aurreko klausulan adierazten den moduan.

Kontratistak errespetatu egin beharko du baldintza agirian edo kontratuan konfidentzialtzat eman den informazioa, edo bere izaeragatik konfidentzialtzat hartu behar dena, eta kontratistak kontratuaren exekuzioaren ondorioz ezagutzen duena. Betebehar honek informazioa ezagutu eta 25 urtez iraungo du.

20. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura da kontratuaren eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

21. KONTRATUAREN ALDAKETAK

1.- Behin kontratua burutzen denean interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako kasuetan eta bertan ezarritako mugekin.

2.- Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, kontratuaren zuzendaritzak beharrezko proposamena idatziko du, hura justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuek osatua. Administrazioak aldaketa onartu aurretik enpresa kontratistari entzun beharko zaio. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketak, SPKLren 191. eta 207. artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatu eta SPKLren 153. artikuluan xedaturikoaren arabera dokumentu administratiboa formalizatu ondoren, behin betiko bermea berregokituta, hala behar badu.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

22. KONTRATISTAREN ONDORENGOA IZATEA

1.- Enpresak edo horien jarduera adarrak elkartu, bereizi, ekarri edo eskualdatuz gero, kontratuak indarrean jarraituko du ondoriozko erakundearekin. Kasu horietan ondorengoak bere gain hartuko ditu kontratuaren eskubideak eta obligazioak, SPKLren 98. artikuluan jasotako baldintzak betez.

2.- Kontratistaren betebeharra da nortasun juridikoari eragin lekiokeen edozein aldaketa Administrazioari jakinaraztea, eta fakturak ordaintzeko legezko epea eten egingo da subrogazioaren baldintzak betetzen direla egiaztatu arte.

3.- Kontratua esleituko zaion erakundeak izan beharreko baldintzak betetzen ez baditu ezingo zaio subrogatu eta, kasu horretan, kontratistari leporatutako arrazoiengatik amaitutzat emango da kontratua.

23. KONTRATUA LAGATZEA

1.- Kontratuari darizkion eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio enpresa kontratistak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Lagapen hori egiteko, kontratistak SPKLren 214. artikuluan jasotako ondorengo mugak eta baldintzak errespetatu beharko ditu:

a) Kontratazio organoak, aurretik, eta berariaz, baimendu egin behar du lagapena.
b) Lagatzaileak, gutxienez, kontratuaren zenbatekoaren % 20a eginda izan behar du.
c) Lagapenaren hartzaileak Administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna izan behar du eta kontratuaren gauzatze fasearen arabera eskatuko zaion kaudimena izan behar du; halaber, behar bezala sailkatuta egon behar du baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio eta ezingo da kontratatzeko debekuetan sartuta egon.
d) Esleipendunaren eta lagapenaren hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan jaso beharko da.

3.- Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

24. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat gauzatzea, aurretik Udalak espresuki baimenduta, eta SPKLren 215, 216 eta 217. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

25. BERME EPEA

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

1.- Kontratua gauzatutzat hartuko da kontratistak kontratuaren xede den prestazioa erabat gauzatu duenean, ezarritako baldintzetan eta Administrazioa gogobeteta.

2.- Kontratuaren xede den prestazioa gauzatu eta gehienez hilabete pasa baino lehen, onarpen egintza formala eta positiboa egingo da.

Prestazioen onarpena egiterakoan antzematen bada prestazio horiek ez direla ezarritako baldintzetan gauzatu eta bete, edo akatsak daudela, kontratatutako prestazioak egiteko edo antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko zaio kontratistari. Lanak ez baldin badatoz bat kontratatutako prestazioarekin kontratistari egotz dakizkiokeen hutsegite eta akatsengatik, Udalak uko egin ahal izango dio prestazioari, ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuta, edo eskubidea edukiko du, bere kasuan, ordaindutako prezioa berreskuratzeko.

3.- Halaber, BI HILABETEKO berme epea egongo da, onarpen egintza formala eta positiboaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, SPKLn eta HAKLEOean adierazitako ondorioetarako ezartzen dena, Baldintza Teknikoen Agirian zehazten den bezala.

Berme epean egiaztatzen bada egindako lanetan hutsegiteak edo akatsak daudela, kontratazio organoak kontratistari horiek zuzentzeko eskatzeko eskubidea izango du.

4.- Berme epea amaitzen bada Udalak adierazitako eragozpenik edo salaketarik formalizatu gabe, kontratista aske geratuko da egindako prestazioak direla-eta izan zezakeen erantzukizunetik.

26. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZEHAPENAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

Kontratista behartuta dago kontratua betetzera gauzatzeko ezarrita dagoen epe barruan, baita, kasua balitz, ezarritako epe partzialetan ere.

Kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik ohartaraztea.

1.- **Kontratua burutzeko epeak ez betetzea**

Kontratista, berari egotz dakizkieken arrazoiengatik, kontratuaren epe osoa edo, hala badagokio, epe partzialak betetzerakoan berandutzan erortzen baldin bada, Udalak kontratua bertan behera uzteko erabakia hartu ahal izango du. Kasu horretan bermea galdu egingo da. Edo kontratatzaileari eguneko zigorrak ezarri ahal izango dizkio, honako proportzio honetan: 0,60 euro eguneko kontratuaren prezioan jasotako 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatik zehapena kontratuaren prezioaren % 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean, kontratazio organoak kontratua suntsitzeko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko zehapen berriak ezarrita.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

2.- **Prestazioen burutzapen partzialari buruz edo prestazioak akatsez betetzeari buruz**

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu edo prestazioak akatsez betetzen baditu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua suntsitzea, eta kontratistak bermea galduko du edo kontratuaren prezio osoaren % 10eko zehapena ezartzea.

3.- **Exekuzioko baldintza bereziak betetzen ez baditu**

Oso larritzat joko da exekuzio baldintza bereziak ez betetzea, kontratuaren nahitaezko betebehartzat jotzen baitira, eta kontratua deuseztatzeko arrazoitzat hartuko da, baldin eta jarduera hori isolatua eta bideratzeko modukoa ez bada, eta kontratua deuseztatzea herri intereserako gomendagarritzat jotzen ez bada. Kasu horretan, beraz, dagokion zigorra ezarriko da.

Arau orokor gisa, zigorra kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 1ekoa izango da, beti ere, kontratazio organoak, behar bezala arrazoituta, hutsegitea larria edo oso larria dela uste ez badu. Azken kasu horretan zigorrak, hurrenez hurren, % 5ekoak, edo legez gehienera jar daitekeen % 10ekoak izan daitezke. Hutsegitea behin eta berriz gertatzen bada, hori kontuan hartu ahal izango da hutsegitearen larritasuna baloratzeko.

kontratistak exekuzioko baldintza bereziak bete dituen egiaztatu ahal izango du kontratazio organoak kontratua egiten ari den edozein unetan.

4.- **Kontratuaren berme epean betebeharrak bete ez izanari buruz**

Enpresa kontratistak, hari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, ez badu betetzen prestazioak ezarritako baldintzetan egiteko edo antzemandako akatsak zuzentzeko betebeharra berme epean, administrazioak era subsidiarioan exekutatu ahal izango ditu lanak kontratistaren kontura, eguneroko zigorrak ezarriz, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko euro 1ekoak, sortutako kalte eta galerei dagokien kalte ordainarekin batera.

Edozein kasutan, zigorrak bi modutara ordain daitezke: kontratistari egin behar zaion ordainketa osoan edo partzialetan zenbatekoak kenduta, edo bermetik kenduta; hori guztia SPKLren 192. artikuluaren eta hurrengoen arabera.

27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratuaren epea bukatzen denean edo suntsitzean iraungiko da kontratua.

Epea bete delako kontratua iraungi dela ulertuko da, zehaztutako epea igaro denean.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira SPKLren 211. artikuluan oro har kontratu administratiboetarako aurreikusitakoak, eta Lege beraren 313. artikuluan bereziki zerbitzu kontratuetarako jasotakoak.

Horrez gain, kontratua suntsitzeko ondorengo kausa ezartzen da espresuki: esleipendunak administrazioarekin kontratatzeko betekizunak galtzea (kontratistaren gaitasuna eta kontratatzeko debeku arrazoia ez izatea), SPKLn ezartzen den arabera.

Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoi izango da baldintza agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian jasotako kontratua gauzatzeko nahitaezko betebeharren bat ez betetzea edo baldintza bereziak ez betetzea.

28. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Udalari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta horren ondorioak zehaztea. Eskumen horiek SPKLren eta HAKLEOean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei jarraituz erabiliko dira.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1.- Baldintza Agiri honen arabera egingo den kontratua zerbitzu kontratua da, SPKLren 17. artikuluak xedatutakoaren arabera. Administrazio izaera izango du, eta Administrazio Publikoen kontrataziorako dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta betiere kontratazio publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

- Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiri hau eta honi atxikitako gainerako Agiri Teknikoak.
- Lizitazioa eta kontratua egiten diren bitartean, eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Administrazio Publikoetako Kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.
  Bereziki, honako arauak aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onesten duena; Sektore Publikoko Kontratuen azaroak 8ko 9/2017 Legea (SPKL); eta arauzko xedapen gisa 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko, 30/2007 Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duena, aurrekoekiko kontraesanean ez dagoen guztian indarrean dagoena (HAKLEO).
- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.- Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratuaren interpretazioak, ondorioek, betetzeak edo iraungitzeak eragin ditzaketen auziak ebazteko, eta auzi horiek aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez argitu ezin direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

3.- Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, agiri honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

4.- Agiri hau eta Baldintza Teknikoen Agiria euskaraz idatziak izan dira eta gaztelaniara itzuliak. Ondorioz, bi bertsioen artean desadostasunik badago, euskarazkoak gainetik egongo dira.

30. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

1.- Kontratazio honi dagozkion ebazpen eta izapide egintzei, azken horiek gaiaren oinarria

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzeko ezintasuna erabakitzen badute, eskubide eta interes legitimoetan konpon ezinezko defentsa gabezia edo kaltea eragiten badute, aukerako izaeraz, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen bitartez araututako **administrazioarekiko birjarpen errekurtsoa** aplikatuko zaie, edo uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auziaren Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legean araututako **administrazioarekiko auzi errekurtsoaren** xede izango dira.

2.- Interesatuek gainerako izapide egintzen aurkako jarrera alegatu ahal izango dute, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean kontuan har dadin.

31. KONTRATAZIO PROZEDURAKO KOMUNIKABIDEAK

SPKLren 140.1.4. artikuluan eta 15. xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazioak ardurapeko adierazpenean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek ardurapeko adierazpenean zehaztutako helbide elektronikora.

Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko plataforman jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

Oiartzunen, sinaduraren egunean

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

I. ERANSKINA
ARDURAPEKO ADIERAZPENA

“.....jaunak/andreak, NA..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (posta elektronikoa: ….....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo.....-(r)en izenean, IFK/NA…….....,, hiria ....., helbidea:....., etab.), **OIARTZUNGO UDALERRIAN MINTZALAGUN PROGRAMA KOORDINATZEKO ETA DINAMIZATZEKO ZERBITZUAREN** kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.- Enpresa eskaintzaileak badauzkala kontratuaren xedea betetzeko beharrezko diren gaitasun juridikoa eta baliabideak.

II.- Sinatzaileak eskaintza aurkezten duen sozietatearen izenean jarduten duela eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko nahikoa duela sozietate horrek, edo bere kasuan, dagokion sailkapena duela, eta jarduera egiteko behar besteko baimenak dituela.

III.- Behean sinatzen duena eta ordezten duen enpresa ez daudela sartuta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluak aipatzen dituen bateraezintasun eta debeku egoera bakar batean ere.

IV.- Zerga eta Gizarte Segurantza obligazioak betetzen dituela, bai eta lan eta gizarte alorrean indarrean dauden xedapenak.

V.- Kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatuta dagoela:

- ☐ **Bai,** SPKL legeko 75.2 artikuluak aipatzen duen konpromisoa betez.
- ☐ **Ez**

VI.- Lizitatzailea inskribatuta [BAI] [EZ] dagoela Estatuko edo Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialean, eta baiezko kasuan, ziurtagiria ofizioz eransteko baimena ematen duela (jarri X dagokion kasuan).

- ☐ **Bai**
- ☐ **Ez**

VII.- Kontratuaren esleipenduna izatera iritsiko balitz, bere onespena ematen duela kontratuaren lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik ondorioztatuko datu guztiei gardentasun instituzionala emateko, harik eta prozesua amaitzen den arte.

VIII.- Aurrekoez gain, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako bestelako

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

baldintza guztiak betetzen dituela. Horri lotuta, baldintza horiek egiaztatzeko konpromisoa hartzen du eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztuz, esleipenduntzat proposatua den kasuan.

IX.- Atzerriko enpresaren kasuan, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegietako jurisdikzioaren pean jartzen dela, eta bere kasuan, egoki lekiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda.

X. – Honako hau dela jakinarazpenak egiteko nire posta elektronikoaren helbidea:

** Kontuan izan, SPKLren 140.1.a)4.1 artikuluaren arabera, jakinarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea "gaitua" izan behar dela, SPKLren Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera, baldin eta kontratazio-organoak jakinarazpenak bitarteko horren bidez egitea erabaki badu.*

EMAIL:	……

DATUAK KONTSULTATZEKO BAIMENA (*)

Esleipendun gisa proposatua izatekotan, Oiartzungo Udalari BAIMENA EMATEN DIO zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentalki egiaztatzea.

(*) Inolako aukerarik ez markatzekotan, ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimentzen.

- ☐ **Bai**
- ☐ **Ez**

SINATZEKO LEGE-GAITASUNA

Dokumentu hau sinatzeko lege-gaitasuna dudala aitortzen dut.

IZEN-ABIZENAK		***SINADURA***
N.A.N	***DATA***	

Oiartzungo Udalak, kontratazioa ondo egiten dela kontrolatzeko erakunde

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

hornitzaileen kontratazioa eta langileak kudeatzeko garaian, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen arabera tratatzen ditu datuak. Datu pertsonalak organo judizialei eta auzitegiei, arloan eskumena duten Administrazio Publikoei eta Europar Batasuneko Egunkari Ofizialari jakinarazi ahal izango zaizkie. Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezerezteko, eta horien tratamendua mugatzeko edo tratamendu horren aurka jartzeko. Horretarako, idazki bat bidali beharko du Udaletxeko helbidera edo dbo-dpd@oiartzun.eus posta elektronikora. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Politikei buruzko informazio gehiago www.oiartzun.eus webgunean eskuratzeko.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

II. ERANSKINA
GIZA BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

“.....jaunak/andreak, NA..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (posta elektronikoa: ….....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo.....-(r)en izenean, IFK/NA…….....,, hiria ....., helbidea:....., etab.), **OIARTZUNGO UDALERRIAN MINTZALAGUN PROGRAMA KOORDINATZEKO ETA DINAMIZATZEKO ZERBITZUAREN** kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

I.- Aipatutako kontratua gauzatzeko karatularen 11.3 atalean eta Baldintza Teknikoen Agirian zehazten denaren arabera giza baliabide horiek **honako baldintzak beteko dituztela**:

- Euskararen Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila.

Kontratistak bermatuko du, sor daitezkeen ordezkapenetan ere, langile berriek titularraren baldintzak beteko dituztela. Hasierako pertsonalean edozein aldaketa egiteko, Udalak oniritzia eman behar du.

.....en, 2026ko .....an

Sinadura. ESKAINTZAILEA.”

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

III. ERANSKINA
PROPOSAMEN EREDUA

“.....jaunak/andreak, NA..... zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk. ..... (posta elektronikoa: ….....), gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean (edo.....-(r)en izenean, IFK/NA……....., hiria ....., helbidea:....., etab.), **OIARTZUNGO UDALERRIAN MINTZALAGUN PROGRAMA KOORDINATZEKO ETA DINAMIZATZEKO ZERBITZUAREN** kontratazioa arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

ADIERAZTEN DU:

I.- Ezagutzen dituela Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta kontratu hau arautuko duen gainerako dokumentazioa, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II.- Ordezkatzen duen enpresak kontratu hau burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako betebehar eta baldintza guztiak betetzen dituela.

III.- Esleipenduna gertatuz gero, aipatutako lanak onartutako baldintza agirietan zehazten diren baldintzen arabera eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko dituela beti.

IV.- Lanaren, zergaren eta Gizarte Segurantzaren alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena betetzera behartzen dela.

V.- Berariaz adierazten du, eskaintza egiteko garaian, kontuan hartu dituela enplegua babesteko alorrean, lan baldintzen eta laneko arriskuak prebenitzeko alorrean indarrean dauden xedapenetatik sortutako betebeharrak, bereziki Gipuzkoan aplikatzekoak diren jarduera-sektore haietako Hitzarmen Kolektiboak eta ingurumena babestekoak direnak.

Ondorio horrekin, adierazten du, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera burutuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa ondorengoa dela:…….(…… Kodea).

Era berean, kontratua esleitu ondoren, aipatu langile horiei aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan eskatuko zaion informazio oro kontratazio organoari ematera behartzen dela.

VI.- Esandako guztiaren arabera, konpromisoa hartzen duela **zehaztutako zerbitzua emateko,** …… **euroko urteko prezioan (BEZa barne)**, honela banakatuta:

- Prezioa: …….euro.

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

- BEZ aplikagarria (%.....): ……..… euro.

Esandako prezioetan kontzeptu guztiak barruan daudela ulertu behar da, eta hor gastu guztiak, zergak, arlo fiskaleko edozein tasa eta ordainketak sartzen dira.

VII.- Horrez gain, adierazten dut:

Alde batetik, ..….. orduko ikastaroa egina duela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

Baiezko kasuan, ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Bestetik, bermatuko dela exekuzio-taldean emakumeen gutxieneko % 50eko presentzia:
- ☐ Bai
- ☐ Ez

VIII.- Adierazten dut ondorengo ziurtagiriak ditugula:

- ☐ Bikain ziurtagiria
- ☐ Bai euskarari ziurtagiria
- ☐ Baliokidea (zehaztu): …….

Eta zehazki ondorengo kopuruak:
- …….. behe mailako ziurtagiri.
- …….. erdi mailako ziurtagiri.
- ……. goi mailako ziurtagiri.

IX.- Konpromisoa hartzen dudala baldintza teknikoen agirian jasotako gutxieneko 3 ekintzez gain ….. ekintza gehiago egiteko, hau da, denera, ……. ekintza osagarri egiteko konpromisoa hartzen dut.

X.- Konpromisoa hartzen dudala egitasmoa aurrera eramango duen proiektu arduradunaz gain …….. lankide gehiago atxikitzeko kontratura.

Giza baliabide gehiago atxikituko badira, organigrama aurkeztu beharko da.

XI.- Helduen Euskalduntze Alfabetatzean aritzeko Glotodidaktika ikastaroa baduela:

- ☐ Bai
- ☐ Ez

Baiezko kasuan, ziurtagiria aurkeztu beharko da.

XII.- Proiektuaren jarraipenaz arduratuko den adskribatutako langileak ondorengo eskarmentua duela:
- …….. orduko esperientzia eskolaz kanpoko helduen mintzapraktika

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

eta erabilera egitasmoetan azken 3 ikasturtetan.

- ……. orduko esperientzia helduen euskalduntze eta alfabetatze egitasmoetan azken 3 ikasturtetan.

- …….. orduko esperientzia euskalgintzan eta euskararen sustapenean azken 3 ikasturtetan.

Esperientzia hori frogatzeko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

.....en, 2026ko .....an

Sinadura. ESKAINTZAILEA.”

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

IV. ERANSKINA
LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

Kontratazio prozeduretako izapideetarako (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso…) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.

1. Baldintza administratiboak:
   - Ziurtagiri digital bat izatea, izapide elektronikoetarako baimendutako erabilera duena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
     - Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
     - FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
     - Nortasun agiri nazional elektronikoa
     - Camerfirma (entitatea, herritarra).
   - Egoera hauetako batean egotea:
     - Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan
     - Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman.
     - Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

2. Baldintza Teknikoak:
   Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke:
   http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/lic_elec_requisitos_tecnicos/es_def/index.shtml

3. Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945 016298 telefonoan.

   Zerbitzu hori ekipoak konfiguratzeko eta bidalketak egiteko eskainiko da. Gomendagarria da, batetik ordenagailuetan konfigurazioak egin aurretik lehenbailehen beraiekin hitz egitea eta bestetik, espedienteko eskaintzak aurkezteko epea bukatu aurretik froga bat egitea.

   Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua: Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da: www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzako lizitazio elektronikoko

ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973

plataformaren bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazioak ardurapeko adierazpenean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio.

Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horrek ardurapeko adierazpenean zehaztutako helbide elektronikora.

Nork Sinatua / Firmado por: ALOÑA LERTXUNDI FERRAN - 72835500C
2026/07/08 09:17:04

EKS | CSV: ESKU52c4e34d-4d57-47c9-bc46-d971f7aa0973
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310